

# OLATZ SALVADOR

AHULDADEAREN INDARRA – **Karmele Jaio**

Olatz Salvadorren musika ez da laua, labirinto bat dirudi. Suge baten antzera okertuz herrestatzen da gure azalaren gainetik. Sigi-saga doa aurrera eta gure ahulune eta zaurien inguruan bihurtzen da, leuntasunez, haien gainean ukendu bat zabaldu nahian bezala. Eta ukendua aldi berean da gozo eta mingots, atximurka eta lastana. Izan ere, gureak bezala sentiarazten dizkigu kantueta azaltzen dituen beldurrak, hutsuneak, dardarak... Bat egiten dugu barrenek nola baretu ez dakien ahots horren minarekin; baina, aldi berean, haren ahots leun eta bihiak zerurantz begira jartzen gaitu, gure zauri zailenen gainetik zoriontsu izateko baimena dugula sinestaraziz. Zatoz, xuxurlatzen digu belarrira, utzi egunari gaua orbaintzen. Eta gu bagoaz, lasaitu ederra hartuz.

Olatz Salvadorren abestiek egia bat gordetzen dute, bere ahotsarena, eusten dion musikari esker indartu egiten dena. Lehen kantutik, intro funtzioa betetzen duen "Gaua" izenekotik, igarri dezakegu disko guztia bilduko duen giro intimo eta apur bat onirikoa, zeinen baitan ahots leun eta zehatz batek uluka egiten dion eguzkiari, gauari, zeruari, portuei, itsasoari, mamuei, izareei, arrakalei, kale egiten diguten kaleei... Eta gora eta behera garamatza, mareak bezala, uhin zakarririk eragin gabe, baina sakoneko erresaka baten indarrez. Abesti bakoitzaren elementu guztiak erakusten duten batasun konplizeak ematen dio hein handi batean indar hori: ahotsa eta musika elkari adi daudelako, elkar zaintzen dutelako, abestietan aurrera egin ahala elkar indartzen dutelako. Horrela gertatzen da, adibidez, "Ez garen gu" sakon eta zirraragarrian, "Ahots hari" aberatsean, "Ba hori" hipnotikoan edota "Gelditu hor" sendoan, batzuk aipatzearen.

Batasuna eta soinu trinkoak baditu bere arrazoiak, besteak beste, Pablo Novoa egindako ekoizpen eraginkorra eta musikari guztiak helburu beraren zerbitzura egoteko duten abilezia. Ander Zulaika (bateria), Jagoba Salvador (baxua), Pablo Novoa (gitarra, programazioak eta sintetizadoreak) eta Mattin Saldias (gitarra), denak ari dira leku berdinerantz bultzatzen, denak osotasun baten parte direla erakusten. Rozalén ("Ahots hari" - Alaia Martinen hitzekin), La Mare ("Mareak"), Idoia Asurmendi ("Gelditu hor" - Ane Labakaren hitzekin) edo Ivan Ferreireoren ("Promesas que no valen nada") kolaborazioek, gainera, jada perfektua zen egitura bati berniz distiratsua bat ematea lortzen dute.

"Aho uhal" diskoa barruraino bustitzen gaituen zaparrada zintzo bat da. Zuzenean lotzen gaitu gure ahuldade eta hutsuneekin eta bat batean gogoratzen digu hauek ere badirela gure bizitzaren parte, bagarela ez garena ere, falta zaiguna, desiratzen duguna... eta beldur izateko, akatsak egiteko, ezegonkor sentitzeko, lekuz kanpo egoteko, perfektuak ez izateko lizentzia dugula.

Olatz Salvadorren ahotsak, belarrira xuxurlatutako garrasi horrek, eta inguratzen duen musikak, ahuldadearen indarra eta edertasuna erakusteko dohaina dute. Eta bide batez, norberaren hauskortasunaren xarma ezagutzen laguntzen digute. Geure burua inoiz baino ederragoa sentitzen dardarka gaudenean.



## AHO UHAL

01. GAUA
02. AHOTS HARI (ft. Rozalén)
03. GELDITU HOR (ft. Idoia Asurmendi)
04. ZURE EGIA
05. EURIA
06. GALDU
07. ERAMAN NAZAZU
08. EZ GAREN GU
09. MAREAK (ft. La Mare)
10. BA HORI
11. ESKUEKIN  
Bonus Track:
12. PROMESAS QUE NO VALEN NADA  
(ft. Iván Ferreira)

### MUSIKARIAK

**Ander Zulaika** (bateria)  
**Jagoba Salvador** (baxua)  
**Pablo Novoa** (gitarra, programazioak, sintetizadoreak)  
**Mattin Saldias** (gitarra)  
**Olatz Salvador** (ahotsa)

**airaka**

639 760 466 / 618 627 931  
www.airakamusic.com  
info@airakamusic.com



# OLATZ SALVADOR

LA FUERZA DE LA DEBILIDAD – **Karmele Jaio**

La música de Olatz Salvador no es plana, es un laberinto. A medida que la escuchamos vamos sintiendo que avanza como una serpiente sobre nuestra piel y se retuerce sobre nuestras heridas y nuestros puntos más débiles, señalándolos, haciéndolos más visibles. Su tacto es a la vez dulce y amargo, es al mismo tiempo caricia y pellizco, porque al escuchar sus canciones reconocemos el dolor, los miedos, las heridas, los vacíos a los que canta, nos reconocemos en esa voz que no sabe cómo apaciguar las mareas que remueven su interior; pero, al mismo tiempo, la intensa suavidad de su voz la convierten en un bálsamo que nos permite mirar al cielo, haciéndonos creer por un momento que, a pesar de nuestras heridas más difíciles, tenemos derecho a buscar la felicidad. Ven, deja que el día cicatrice la noche, nos susurra al oído. Y nos alivia.

En las canciones de Olatz Salvador hay una verdad, la de su voz, que gana intensidad gracias a la música que la sostiene. Ya desde el primer tema, la intro “Gaua”, adivinamos la atmósfera íntima, un tanto onírica, que nos envolverá durante todo el disco. Apoyada sobre esa atmósfera, una voz suave y precisa aúlla al sol, a la noche, al cielo, a los puertos, al mar, a los fantasmas, a las sábanas, a las grietas, a las calles... Y nos lleva arriba y abajo, como las mareas, sin brusquedades, pero en constante movimiento, con la fuerza de una resaca profunda. Y la fuerza se genera porque existe una unidad cómplice entre todos los elementos, música y voz que se miman mutuamente, se atienden, y crecen a medida que avanzan como en la profunda y emocionante “Ez garen gu”, en la rica “Ahots hari”, en la hipnótica “Ba hori” o en la contundente “Gelditu hor”, por citar algunas de ellas.

Esa unión y ese sonido compacto son el fruto de una eficaz producción de Pablo Novoa y de un grupo atento, al servicio todo él de un mismo fin. Ander Zulaika (batería), Jagoba Salvador (bajo), Pablo Novoa (guitarras, programaciones y sintetizadores) y Mattin Saldias (guitarras) se sienten parte de un todo y nos empujan hacia el mismo lugar. Las colaboraciones de Rozalén (“Ahots hari” - escrita por Alaia Martin), La Mare (“Mareak”), Idoia Asurmendi (“Gelditu hor” - escrita por Ane Labaka) o Iván Ferreiro (“Promesas que no valen nada”) consiguen además dar un barniz reluciente a un armazón que ya era perfecto.

El disco “Aho uhal” es un chaparrón que nos moja hasta dentro, porque su sinceridad conecta directamente con nuestras debilidades y nuestros vacíos y nos recuerda que también somos lo que no tenemos, lo que perdemos, lo que anhelamos; que tenemos licencia para tener miedo, para cometer errores, para sentirnos inestables, para estar fuera de lugar, para no ser seres perfectos.

La voz de Olatz Salvador, esa especie de grito susurrado al oído, y la música que la envuelve, tienen el gran don de convertir la debilidad en fuerza y en belleza. Y, de paso, nos hacen apreciar el encanto de nuestra propia fragilidad. Nos hacen sentirnos más bellas y bellos que nunca cuando temblamos.



## AHO UHAL

01. GAUA
  02. AHOTS HARI (ft. Rozalén)
  03. GELDITU HOR (ft. Idoia Asurmendi)
  04. ZURE EGIA
  05. EURIA
  06. GALDU
  07. ERAMAN NAZAZU
  08. EZ GAREN GU
  09. MAREAK (ft. La Mare)
  10. BA HORI
  11. ESKUEKIN
- Bonus Track:
12. PROMESAS QUE NO VALEN NADA (ft. Iván Ferreiro)

### MÚSICOS

**Ander Zulaika** (batería)  
**Jagoba Salvador** (bajo)  
**Pablo Novoa** (guitarra, programaciones, sintetizadores)  
**Mattin Saldias** (guitarra)  
**Olatz Salvador** (voz)



639 760 466 / 618 627 931  
www.airakamusic.com  
info@airakamusic.com

